

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4737

EBAZPENA, 2019ko urriaren 3koa, Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta iragartzen baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 18ko Aginduan aurreikusitako laguntzen ematea. Agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2019ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia.

2019ko uztailaren 1eko EHAAn (123. zk.), Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 18ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez ezartzen baitira paisaiaren 2019ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko abuztuaren 1ean amaitu zen, aipatutako aginduaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela izanik, eskabide hauek sartu dira:

	Udala/Kontzejua	Proiektuaren titulua	Aurrekontua BEZik gabe
1	Leintz-Gatzaga	Leintz-Gatzagako PEP	30.000,00
2	Nabarniz	Nabarnizi eta haren gailurrei buruzko PEP: paisaiaren gaineko ikusizko helmena	14.500,00
3	Santurtzi	Santurtziko itsas-zerrendako PEP	30.000,00
4	Sopela	Sopelako (Bizkaia) itsaslabarrak balioan jartzeko PEP	14.730,00
5	Sopuerta	Sopuertako burdinaren PEP	20.115,00
6	Tolosa	Tolosan Oriia ibaiaren ertzean kokatutako Santa Lutzia-Guadalupe eremua berroneratzeko PEP	29.300,00
7	Zeberio	Zeberioko PEP	27.000,00
8	Zestoa	Zestoako zementu-industriako PEP	25.200,00
9	Andoain	Andoaingo Leitzarari ibarreko gunearen PEP	24.000,00
10	Idiazabal	Gurutze Berri auzoaren urbanizatzea eraberritzeko proiektua	-

Dirulaguntza hauek arautzen dituen 2019ko ekainaren 18ko Aginduaren 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, irailaren 17an horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskabideak aztertu eta egiaztatzeko xedeaz, kontuan hartuta artikuluko horren 3. apartatuan xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa. 2019ko irailaren 18an, balorazio-epaimahaiaren eraketa eta osaera adierazten dituen akta udal eskatzaile guztiei jakinarazi zitzaizen, abstentzio-eskubidea eta errekusatze-eskubidea bermatzeko, dirulaguntza hauek arautzen dituen Aginduaren 9.2 artikuluan xedatutakoa betez.

2019ko ekainaren 18ko Aginduaren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 300.000 euro bideratuko dira dirulaguntzak emateko. Bestalde, 15. artikulua zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako 30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ez BEZa ez bestelako zergak ezin izango direla diruz lagundu.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, agindu arautzailearen 9.4 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den. Halaber, proposamen horretan jasoko dira ukatzeko diren eskabideen zerrenda eta ukatzeko arrazoiak.

Azkenean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 18ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren 2019ko ekitaldirako ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia), eta horretarako eraturako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Paisaiarako ekintza-planak idazteko dirulaguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejueri, adierazitako zenbatekoan:

	Udala	Proiektuaren titulua	Balioespena	Dirulaguntza
1	Santurtzi	Santurtziko itsas-zerrendako PEP	7	27.000,00
2	Tolosa	Tolosan Ori ibaiaren ertzean kokatutako Santa Lutzia-Guadalupe eremua berroneratzeko PEP	7	26.370,00
3	Zestoa	Zestoako zementu-industriako PEP	5,25	22.680,00
4	Nabarniz	Nabarnizi eta haren gailurrei buruzko PEP: paisaiaren gaineko ikusizko helmena	5	13.050,00
5	Sopuerta	Sopuertako burdinaren PEP	5	18.103,50
6	Zeberio	Zeberioko PEP	5	24.300,00

Bigarrena.– Paisaiarako ekintza-planak egiteko dirulaguntzak ukatzea ondoren zerrendatutako udalei, eta kasuan kasu ukatzeko arrazoiak:

	Udala	Ukazioaren zergatia
1	Leintz-Gatzaga	Balorazio orokorrean 5 puntu baino gutxiago, 9.6 artikulua
2	Sopela	Balorazio orokorrean 5 puntu baino gutxiago, 9.6 artikulua
3	Andoain	Eskaera egitean, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta ez edukitzea (7.5.c artikulua).
4	Idiazabal	Ez dator bat Agindu arautzailearen xehearekin, 1. eta 2. artikulua

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztientzako jakinarazpen-balioa izan dezan.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan jarriz ematea jakitera.

2019ko urriaren 15a, asteartea

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 3a.

Lurralde Plangintzaren sailburuordea,
MARIA ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.